

FILM LABURRA > GRABAZIOA

# Krisi ekonomikoa gaitzat duen film laburra osatzen aritu da Banarte

Ekaitz Elgezua Banarte antzerki taldeko kideak idatzi eta zuzendu du 'El Prestamo' film laburra

Iazko apirilean Abadiñon sortutako Banarte antzerki taldearen inguruan biltzen diren zenbait aktore eta sortzaile dira abuztu honetan *El Prestamo* grabatzen aritu direnak. Izan ere, taldekideek eurek nabarmentzen dutenez, askorentzako opor sasola dena aprobetxatzen baitute zenbaitek ogibide ez baina

zaletasun eta gozagarri duten hori aurrera eraman eta taldekideen elkarlanean oinarrituta buruan duten ideia edo proiektuari helteko: antzerkia da Banarteko taldekideak lotzen dituen, eta film labur baten grabazioa da orain elkarlanean egin dituen.

### Film laburretara salto

Iazko apirilean sortu zenetik Abadiñon, batez ere, antzerki gintza taler eta emanaldiak eskaintzen jardun dute euren burua *El desfloro de Banarte* bakarriketa sortarekin aurkeztu zuten Banarte taldeko antzezleek.

Uda honetan hasi dutena bestelako lana da: taldeko kideetako batek, Ekaitz Elgezuak, zuzendutako film laburra da banartetarrak lanean buru-belarri ipini dituen, uda sasoi bete-betean. Ikasketak Madrilen burutzen diharduen gaztea da film laburraren zuzendari eta gidogilea, eta *El Prestamo* du Abadiñoko antzerki taldeko kide



Gisa honetako bigarren esperientzia izan dute antzerki taldekoek

eta lagun kolaborazioarekin osatuko duen sorkuntza.

Azkenaldian denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa gaitzat duen ikus-entzunezkoa da abuztuaren bututzen aritu direna, euren berbetan, egoera ekonomikoari buruzko "ikuspegi ironiko eta umoretsua eskaintzen duena".

Rafa Herce, Banarte taldearen sortzaileetako bat, da film laburraren protagonista nagusia, eta Antonio izeneko pertsonaia da *El Prestamo* lan honetan interpretatzen duena. "Bizitzan aurrera egiteko jokoak ematen dion ilusioa baino ez duen gizon aberatsa da protagonista", aktorearen beraren hitzetan.

Ikus-entzunezko lanean baino antzerkian ohituagoa dagoen taldea izanagatik, ondo moldatu omen dira filma grabatzen.

Orain arte aipatutakoez gainera, Txema Ormaetxea, Erlantz Borges eta Javier Fernández Banarteko kideak ere badira film labur hau sortu duen taldearen parte. Durangoko Landako tabernan egin zuten grabaketa, eta taldearen beste hainbat lagun ere ondoan izan zituzten. ■ I.E.

Abuztuan, Durangoko Landako tabernan egin dute grabaketa lana

Banarte taldeko sortzaileetako bat, Rafa Herce, da protagonista

Jokoarekiko menpekotasuna duen gizon baten istorioa da

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

# Abadiñoko udal egutegiko argazkiak aukeratzeko lehia

Irailaren 30a bitartean aurkeztu ahalko dituzte argazkilariek euren irudiak

Abadiño eta bere ingurunea gai dituzten argazkiak izatea da Udalak antolatutako lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza nagusia, batetik, eta 16 urtetik gorakoak behar dute izan argazkilariek, bestetik. Datorren urteko egutegirako argazkiak dira modu horretan hautatuko dituztenak.

Udalaren webgunearen bidez bidali ditzake argazkiak nahi duenak

Formatu digitaletako argazkiak aurkeztu behar dira lehiaketara, eta irailaren 30a arteko epea zehaztu dute Abadiñoko Udalean, bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkezteko. Udalaren web orriaren bidez bidaliko dira argazkiak, eta bertan erregistratutako erabilzaileek emango dute epala. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

**EGUNEKO MENUA**  
astelehenetik zaborra  
Erreserbak: 946 030 300

IRAILAREN 1 ETIK AURRERA

Landako etorbidea, 4 48200 Durango

irailaren 11n  
DENBORALDI  
berria!

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

11:30-18:00 07 76 Urteakale, 14 URABIA

**HITZ**

Liburu